Herriko etxeko berrien aldizkaria

EZPELETA

Espelette

Magazine municipal d'information

Actualité / Gaurkotasuna

L'école publique Bilingue
Eskola Publiko Elebidunaren aldetik

Voyage en Chine, Armand David
Txinako bidaia, Armand David

La ville / Hiria

Les travaux
Obrak

#6 2020

édito Sar hitza

Jean-Marie Iputcha
Maire d'Espelette //// Ezpeletako auzapeza

En ce début d'année 2020, le Conseil Municipal et le Maire d'Espelette présentent leurs meilleurs vœux de bonheur, santé et réussite à tous les Ezpeletar. Comme pour beaucoup de familles et d'entreprises, le contexte économique devient également de plus en plus difficile pour notre commune et implique donc des arbitrages en matière de fonctionnement et d'investissement. En effet, la baisse importante des dotations de l'État et la disparition des revenus liés aux transferts de compétences (notamment celle de la gestion de l'eau à la Communauté d'Agglomération Pays Basque), conjointement à la volonté de l'équipe municipale de ne pas augmenter les taux de contributions directes, restreignent fortement les excédents financiers de fonctionnement et limitent la capacité d'investissement.
Dans ce contexte, nous pouvons être heureux de la belle année 2019 qu'auront pu vivre les Ezpeletar. Annoncée dès le début du mandat, la Maison Médicale a ouvert ses portes le 1er février 2019. Elle permet ainsi de regrouper en un seul endroit la quasi-totalité de nos professionnels de santé et a même vu l'arrivée d'un troisième médecin.
Le 24 mai 2019 a également connu un bel évènement avec l'ouverture d'un commerce de proximité, une épicerie paysanne et bio nommée « Elika ». Elle est située dans une ancienne habitation, propriété de la municipalité et rénovée pour cette occasion. L'année 2019 a été celle de l'anniversaire d'Ezpela, qui a fêté ses 50 ans, et qui a enchanté le public lors de ses trois représentations. Enfin, l'année 2019 aura été marquée par la venue des Grandes Dames le 26 août dernier à Espelette. Initiée par Madame Brigitte Macron et malgré les difficultés d'organisation d'une telle manifestation, cette visite a donné à Espelette une reconnaissance internationale et a mis en avant l'hospitalité de ses habitants.
Au nom du Conseil Municipal, je remercie vivement tous les Ezpeletar, ainsi que les entreprises, les agriculteurs et éleveurs, les associations et les commerçants qui font qu'Espelette peut se prévaloir d'avoir cette renommée « mondiale » tout en maintenant une vie de village dynamique et responsable. **Bonne année 2020**

2020 urte hastapen honetan Ezpeletako Herri Biltzarrak eta Auzapezak zorion, osasun eta arrakasta agiantzak helarazi nahi dizkiete ezpeletar guziei. Familia eta enpresa anitzendako bezala, gure herriarendako ere testuinguru ekonomikoa gero eta zailagoa da eta horrek funtzionamendu eta inbertsio mailako erabakiak hartzera behartzen du. Izan ere, Estatuaren zuzkiduren apaltze handiak eta eskumen eskualdatzeei loturiko diru sartzeen desagertzeak (bereziki Euskal Hirigune Elkargoaren esku gelditu den uraren kudeaketarena), herriko etxeko taldeak zuzeneko zergak ez emendatzeko borondatearekin batera, funtzionamendu mailako finantza gainditzeak eta inbertsio gaitasuna mugatzen dituzte.
Testuinguru horretan, Ezpeletarrek bizi ahal izan duten 2019 ederragatik uros izan gaitezke. Agintaldi hastapenean iragarria, 2019ko otsailaren 1ean Osasun Etxeak ateak ireki zituen. Leku berean osasun arloko profesional abantzu guziak biltzea ahalbidetzen du eta, azaroaren 1az geroztik, egitura horrek hirugarren mediku bat du. 2019ko maiatzaren 24a ere gertakari eder baten lekuko izan zen, bio eta laborantza ekoizpenak saltzen dituen "Elika" izeneko hurbileko janari saltegiak ere ateak ireki baitzituen. Herriko etxearen jabetza den eta horretarako berritua izan den eraikin batean kokatua da. Gisa berean, 2019ko urtea, 50 urte bete dituen Ezpelaren urtea izan da. Burutu zituen hiru ikusgarriek jendea loriatu zuten. Azkenik, 2019ko urtea agorrilaren 26an Ezpeletara jin ziren Andere Handiek markatu dute. Brigitte Macron anderearen ekimenez, gisa horretako gertakari batek sortzen dituen zailtasunak gaindituz, bisita horrek nazioarteko aitortza eman zion Ezpeletarik eta biztanleen abegia agerian utzi zuen.
Herri Biltzarraren izenean, deus baino lehen, herriko bizi dinamiko eta arduratsua mantenduz Ezpeletari "mundu mailako" ospea izan dezan ahalbidetzen duten Ezpeletar guziak, enpresak, laborari eta hazleak, elkarteak eta merkatariak eskertzen ditut. ***Urte berri on.*** ■

Hommages • homenaldiak

Durant cette année 2019, nous déplorons la disparition de deux grandes figures d'Espelette : André Darraidou et le Cardinal Roger Etchegaray. Nous tenons à témoigner à leur famille notre soutien et notre reconnaissance. Ces personnalités resteront gravées à jamais dans nos mémoires.
André Darraidou nous a quitté le mercredi 10 avril à l'âge de 72 ans. Ce célèbre restaurateur, Maire d'Espelette de 1989 à 2006, a voué sa vie au développement de son village et du Pays Basque et a œuvré à la reconnaissance du piment d'Espelette à l'échelle nationale et internationale.
Cardinal Roger Etchegaray nous a quitté le mercredi 4 septembre à l'âge de 97 ans. Natif d'Espelette, prêtre, Archevêque de Marseille, Président de la Confrérie des évêques de France puis Cardinal, il a présidé la diplomatie du Vatican à l'époque de Jean-Paul II, dont il était très proche. Il restera à jamais notre Pape à nous.

Gertakarietan aberatsa izan den iragan 2019 urtean Ezpeletako bi lagun ospetsuren desagertzea ere gogoan hartu behar dugu: André Darraidou eta Etchegaray Kardinala. Haien familiari gure sustengu eta esker ona helarazi nahi diegu. Pertsonalitate horiek beti gogoan izanen ditugu.

© Marc Mittoux

André Darraidou *Apirilaren 10ean zendu zen, 72 urte zituela, urte luzetan eritasunaren aurka borrokatu ondoren. Ostaler ospetsu hori Ezpeletako auzapez izan zen 1989tik 2009ra. Nazio zein Nazioartean Ezpeletako biperrak aitortza eskura zezan lan handia egin zuen. Bizia haren herriaren eta Euskal Herriaren garapenaren zerbitzuko eman zuen.*
Etchegaray Kardinala *Irailaren 4an zendu zen, 97 urte zituela. Sortzez ezpeletarra, apeza, Marseillako Artzapezpiku, Frantziako apezpikuen kofradiaren lehendakari eta Frantziako Kardinal, Vatikanoko diplomaziaren buru izan zen haren lagun zen Joan-Paulo II.aren garaian. Gure aita saindua izanen da beti.* ■

Mairie d'Espelette : 145, route Karrika-Nagusia • 64250 Espelette • Tél. 05 59 93 91 44 • Email : secretariat.maire@mairie-espelette.fr
Directeur de la publication : Jean-Marie Iputcha • **Photographies** : mairie d'Espelette et office du tourisme • **Couverture** : © Marc Mittoux
Participation rédactionnelle : Virginie Ipharaguerre, Sylvie Guilçou, Gérard Bruat, Éric Lavigne, Michel Ezcurra
Création graphique, mise en page et régie d'impression : studio d'édition **altergraf.**
6, rue Xara • 64310 Saint-Pée-sur-Nivelle • Tél. 06 32 13 82 65 • RCS 753 800 515
L'impression est certifiée Imprim'Vert© sur papier recyclé.

Du côté de l'école Eskola Publiko Elebidunaren aldetik…
Publique Bilingue

« Baserrian ikusi ditugu xerriak, behiak eta ardiak. »

« Mendian ibili gira ere elurpean ; zer plazerra ! »

« Maite izan dut eskalada egitea ! »

« Gaztain eta Tartine goxoak dira. »

« Pollitak dira ere bai ! »

Classe découverte à Arette

Du 20 au 22 mai 2019, les Grande Section étaient en classe découverte à Arette. Ils ont visité une ferme et fabriqué du fromage, ils ont fait de la marche à la Pierre-Saint-Martin, de l'escalade et ont étudié les cours d'eau. Pour la sortie de fin d'année, les élèves de CE/CM sont allés en randonnée sur les hauteurs d'Espelette. À cette occasion, ils ont pu rendre un village un peu plus propre en ramassant des déchets trouvés sur leur chemin…

Les jeunes responsables de leur village

Pour la sortie de fin d'année, les élèves de CE/CM sont allés en randonnée sur les hauteurs d'Espelette. A cette occasion, ils ont pu rendre un village un peu plus propre en ramassant des déchets trouvés sur leur chemin …

Fête du printemps

Maiatzaren 17an iragan da laugarren aldikotz, Udaberriaren Besta. Saldu ditugu haurrek ereinak zituzten barazkiak, loreak eta aromatikoak, Hurpeau jauna herriko baratzezainaren laguntzarekin. Saltze hori eskolan iragan da.

« *Maitatu izan dugu hazien ereitea.* »

« *Maite izan dugu Hurpeau jaunak nola egin erakustea.* »

Olentzero

Urtero guziz bezala herriko bi eskolak elkartzen dira Olentzero ikaskina ohoratzeko ohizko kantuak eta dantzak emanez.

Parcours artistique théâtre

Maryse Urruty et Camille Duschene de la compagnie Hecho en Casa sont venues à l'école. Elles nous ont appris le théâtre. Nous avons fait des exercices de respiration et de mises en scène, puis nous avons monté une pièce de théâtre. Nous avons bien répété. Nous avons ensuite présenté un spectacle le 24 mai à la salle du patronage. [Les CE2/CM]

Untxiak

Ama eskolako haurrek bi untxi errezebitu dituzte bere gela n ; « Gaztain » eta « Tartine » dituzte izendatu. Egun guziz hartatzen dituzte edatekoa, jatekoa eta bere amodio handiena emanez. Asteburu guziz baita ere oporretako haurren familiek beren exteko ateak idekitzen diote eskoka egina den lana segitzeko eta harreman bat finkatzeko.

Classe de neige

Du 29 janvier au 1er février 2019, nous avons skié pendant 4 jours à La Pierre Saint Martin. Nous avons dormi au centre des PEP d'Arette. C'était génial !
[Les CE2/CM]

De la danse à l'école

Les élèves de CP et CE1 ont participé au festival Hartza Altzoan à Espelette au mois de mars. Les élèves ont créé une danse autour des personnages du carnaval basque, avec l'aide de l'artiste Ihintza Irungaray. ■

Voyage en Chine
Armand David

En 1869, le père lazariste Armand David découvrait le panda géant dans la province du Sichuan en Chine. En 2019, 150 ans plus tard, la commune d'Espelette a souhaité lui rendre hommage.

• D'abord par un voyage en Chine sur les traces de cet illustre ezpeletar.

Ainsi le groupe de 47 personnes emmené par Jean-Marie Iputcha a pu découvrir les sites classiques chinois : à Pékin, la cité interdite, la place Tiananmen, la grande muraille, le parc du cerf David, à Xiang l'Armée de terre cuite, à Shanghai le Bund… Le moment fort du voyage a été le séjour dans le Sichuan et l'accueil royal par les autorités locales. Cinq jours intenses avec au menu la rencontre avec les pandas à Chengdu capitale de la province, la visite du Bouddha Géant à Leshan, l'escapade en téléphérique à la montagne du thé, et en point d'orgue, la découverte de la ville David, de l'église de Baoxing et l'inauguration du musée consacré au père David.

• Ensuite sur la commune, par la pose d'une sculpture. Réalisée par l'artiste Régis Pochelu et intitulée « Topaketa », cette œuvre, qui mêle des éléments des cultures chinoise et basque, symbolise les liens d'amitié entre Espelette et le Sichuan, initiés par le père David. ■

La Korrika sur la Grande Muraille de Chine.



« Inauguration de la maison de l'origine du Panda ».

Le groupe de 47 personnes emmené par monsieur le Maire.

Sculpture réalisée par l'artiste Régis Pochelu et intitulée « Topaketa ».

//// 1869an, Armand David fraide lazaristak Txinako Sixuan probintzian panda erraldoia deskubritu zuen. Ezpeletako herriak 2019an, 150 urte berantago, omendu nahi izan du.

Lehenbizi, ezpeletar ospetsu honen aztarnei jarraika, Txinara eginiko bidai baten bidez. Gisa horretan, 47 pertsonako talde batek, Jean-Marie Iputcha gidari zuela, Txinako gune ezagunenak deskubritu ahal izan ditu: Pekinen, Hiri Debekatua, Tiananmen plaza, Harresi handia, David oreinaren parkea; Xiangen, Terrakotazko armada; Shangain, Bunda… bidaiako une zirraragarriena Sichuango egonaldia eta tokiko autoritateek eginiko harrera izan zen. Intentsitate handiko bost egun horietan, Chengdu tokiko hiriburuan ziren pandak ikusteko, Leshanen Buda Erraldoia bisitatzeko, dutearen mendira teleferiko bidez ihesaldia egiteko parada ukan zuten eta, guzi horien artean, David hiriaren, Baoxingo elizaren eta David fraideari eskainiriko erakustokiaren deskubritzea izan zen. Ondoren, gure herrian, eskultura bat ezarri zen. Regis Pochelu artistak egin duen eta "Topaketa" izena hartzen duen obra horrek txinatar eta euskal kultura uztartzen ditu eta David fraideak abian eman zuen Ezpeleta etu Sichuanen arteko laguntasun harremana sinbolizatzen du.

Obrak
Les travaux...

Épicerie Bio ELIKA

Un an après la fermeture de la dernière épicerie du village, les Ezpeletar ont à nouveau un commerce de proximité avec **Elika**. Cette épicerie a ouvert ses portes le vendredi 24 mai 2019. Elle est gérée par un collectif de producteurs regroupant 12 fermes du Pays Basque. Elle a pour vocation d'offrir aux Ezpeletar tous les produits de première nécessité, des produits d'épicerie et également des produits frais issus d'une quarantaine de producteurs régionaux.
Horaires d'ouverture : du lundi au samedi de 9h à 13h et de 15h à 19h (sauf hiver : fermeture les lundis), le dimanche de 9h à 13h. Tél. : 05 59 20 68 40. ■

© DR

© DR

Coupe des arbres

Suite à l'expertise réalisée par l'entreprise Soubieille qui a mis en évidence le mauvais état de santé d'une douzaine d'arbres le long du sentier des familles, leur abattage devenait nécessaire pour la sécurité des riverains et des randonneurs. Celui-ci a été réalisé au mois d'octobre par la coopérative Lohiague d'Hasparren pour un coût de 30000€. L'accès au chantier pour les gros engins nécessaires s'est fait depuis la prairie mise à disposition par M. Dubranle. Le bois, évacué derrière le dépôt des services techniques, est à la vente. ■

//// Elika Bio Denda

Herriko azken denda hetsi eta urte betera, Ezpeletarrek, ELIKAren plantatzearekin, hurbileko denda bat dute berriz ere. Denda horrek maiatzaren 24an ireki zuen. Euskal Herriko 12 etxalde elkartzen dituen ekoizle kolektibo batek kudeatzen du. Honen xedea, ezpeletarrei premiazko salgai guziak, hots, epizeria produktuak, eskaintzea da, baina baita berrogei bat ekoizleren produktu freskoak ere. ELIKA egun guziez irekia izanen da neguan izan ezik, astelehenez hetsiko baitu.
Irekitze ordutegiak:
Astelehenetik larunbatera: 9:00-13:00 eta 15:00-19:00 (neguan ezik: astelehenez hetsia)
Igandetan: 9:00-13:00
Harremana telefonoz: 05 59 20 68 40

//// Zuhaitz mozketa

Familien bidexkan ziren hamabi bat zuhaitzen osasun egoera txarra agerian utzi zuen Soubieille enpresak eginiko estimatzearen ondotik, biztanle eta ibiltarien segurtasunerako hauen moztea ezinbestekoa agertu zen. Lan hori Hazparneko Lohiague kooperatibak egin du, 30.000 €-ko kostuarentzat. Beharrezkoak ziren tresna handien sartzea Dubranle Jaunak eskura utziriko pentzetik egin zen.
Zerbitzu teknikoetako biltegi gibelera eramana izan den egurra salgai da.

Travaux à l'école

- En 2019, l'ensemble des classes de l'école publique a été doté de VPI (vidéo projecteur interactif), cinq au total. Ce matériel permet aux enseignants et aux élèves d'utiliser le numérique au quotidien. L'équipement a été confié à l'entreprise Indarra pour un montant de 14 600 € ttc.
- L'ensemble des bâtiments et des boiseries sera repeint. Le chantier initialement prévu en deux tranches : vacances de Toussaint et de Noël sera finalement effectué pendant les vacances de Noël et de février. C'est l'entreprise Hargain qui assurera les travaux pour un coût total de 40 026 € ttc.
- Le sol de la classe de maternelle et du dortoir attenant étant très humide et se dégradant de plus en plus ces derniers mois sera remplacé très prochainement. Le chantier est confié à l'entreprise Atlantic Revêtements pour un coût de 8 300 € ttc. ■

Torreseneko bidea

Même si les travaux, qui ont nécessité l'enfouissement des réseaux d'électricité et de téléphone imposant une coordination avec les services de ERDF et de France Télécom, ont pris un peu de retard, le chantier est maintenant terminé. ■

Alurreko bidea

La route d'Alurria s'affaissant à certains endroits et rendant la circulation dangereuse notamment pour les camions de lait, il a donc été nécessaire de lancer des travaux d'enrochement et de revêtement en urgence. Ces travaux, d'un montant de 30 000 € ttc, ont été effectués par l'entreprise Sobamat en début d'année 2019 rendant ainsi la circulation plus sûre. ■

© Fotolia.com

//// Obrak eskolan

- 2019an, eskola publikoko ikasgela guziak BPI (bideo proiektagailu interaktiboa) batez ekipatu ziren, 5 orotara. Material horrek, irakasle eta ikasleei egunerokoan baliabide numerikoa erabiltzeko parada ematen die. Ekipatzea INDARRA enpresaren esku utzi zen eta operazioaren zenbatekoa 14 600 €-koa da.
- Tindaketa lanak: eraikin eta zureria guzia berriz tindatua izanen da. hastapen batean bi alditan egitea aurreikusi ziren tindaketa lanak, Omiasainduko eta Eguberriko oporretan, baina azkenean Eguberriko eta otsaileko oporretan gauzatuko dira. Lana Hargain enpresak eginen du, 40 026 €-ko kostuarendako.
- Zolen zaharberritzea: ama eskolako gelako zola biziki hezea zenez eta azken hilabeteetan egoera makurtzen ari zenez, 2020ko urte hastapenean ordezkatua izanen dela erabaki da. Lanak atlantic revêtements enpresaren esku utzi dira, 8 300€-ko kostuarendako.

//// Torreseneko bidea

ERDF eta France Télécomeko zerbitzuekin koordinatzera behartu gaituzten argindar eta telefono sareen lurperatzeengatik Torreseneko lanek beranta hartu badute ere, gaur egun bururatuak dira.

//// Alurreko bidea

Alurriako bidea tokika lehertzen ari zenez eta bereziki esnearen kamioarentzako zirkulazioa lanjeros bilakatu zenez, presazko harri-lubeta eraikitzea eta estaldura pausatzea abian eman behar izan ziren. 2019ko urte hastapenean SOBAMAT enpresak 30.000 €-ko lanak egin zituen, zerga oro barne, zirkulazio segurragoa bermatuz.

Compétence urbanisme & PLU

Depuis le début de l'année 2017, la compétence « urbanisme » a été transférée à l'agglomération Pays Basque. Le PADD (projet d'aménagement et de développement durable) porté par le cabinet GHECCO est validé depuis 2017. Les réunions de travail étant difficiles à organiser avec le cabinet responsable du dossier et le sujet prenant du retard, il a été décidé, en accord avec la CAPB, de se séparer du cabinet et de travailler avec l'organisme APGL de Pau. Les travaux vont débuter en ce début d'année et nous espérons ainsi terminer cette révision du PLU en fin d'année, voire début d'année 2021. ■

...et des projets en cours ...eta proiektuak

Restauration des remparts et aménagement des abords du Château

Les travaux ont débuté au début du mois de novembre et dureront jusqu'à la fin du mois d'avril 2020. Suite à l'appel d'offres lancé par le Cabinet Dodeman, les candidatures retenues pour ces travaux sont :

- Lot 1, maçonnerie : Etchart Construction pour un montant de 74 570 €ht.
- Lot 2, aménagement paysager : Lafitte Paysage pour un montant de 165 474,77 €ht

Le montant global de l'opération s'élève à 270 596 €ht.

Les subventions obtenues :

- Dons de particuliers : 7000 €
- DETR : 41368 €
- DRAC : 35000 €
- Département : 41368 €
- Fondation du Patrimoine (grâce au mécénat de Total Foundation) : 50000 €
- Fondation Bettencourt Schueller : 50000 €

La restauration des remparts du Château des Barons d'Ezpeleta vise à consolider les vestiges mis au jour lors de la campagne de fouilles de 1997-1998. Elle a également pour but de mettre en valeur les remparts et d'en faciliter leur compréhension.

Le deuxième acte du projet consiste à offrir une profusion végétale afin de poursuivre le travail commencé avec la « collection » d'arbres du Père David. La Commune d'Espelette remercie vivement les donateurs publics et privés pour leurs contributions financières et tout spécialement les particuliers qui, par leurs dons à la Fondation du Patrimoine, ont permis la réalisation de ce projet. ■

//// Harresiaren zaharberritzea eta Ezpeletako Baroien Gazteluaren inguruen antolaketa

Lanak azaroan abiatu ziren eta 2020ko apirila bukaera arte iraunen dute.

Dodeman Kabineteak luzatu zuen eskaintza deialdiaren ondorioz, lan horiendako atxiki diren hautagaiak ondokoak dira:

1. Lotea- hargintza: Etchart Construction zergarik gabeko 74.570 €-ko zenbatekoarentzat
2. Lotea- paisaia antolaketa: Laffite Paysage zergarik gabeko 165.474,77 €-ko zenbatekoarentzat

Operazioaren zenbateko osoa zergarik gabeko 270.596 €-koa da, ondoko diru laguntzak barne

- DETR: 41.368 €
- DRAC: 35.000 €
- Departamendua: 41.368 €
- Ondarearen fundazioa (Total Foundationen mezenasgoari esker): 50.000 €
- Bettencourt Schueller fundazioa: 50.000 €

Ezpeletako Baroien Gazteluaren harresiaren zaharberritzeak 1997-1998ko indusketa kanpainan agerian ezarri ziren aztarnak sendotzea du helburu. Harresiak balioan ematea eta hauen ulermena errextea ere xerkatzen du.

Proiektuaren bigarren atala landare joritasuna eskaintzea da, David Fraidearen zuhaitz "bildumarekin" abian eman zen lanarekin segitzeko gisan. Ezpeletako Herriak emaitza egile publiko zein pribatuak eginiko diru mailako emaitzengatik eskertu nahi ditu, bereziki Ondarearen Fundazioari ematearekin proiektu hau gauzatzea posible egin dute partikularrei.

Projet trottoirs

Afin de continuer dans la volonté de favoriser la sécurité des piétons, une étude a été réalisée sur la création de trottoirs sur Elizaldeko bidea.
Le bureau d'étude Ideia chargé de ce projet nous a proposé une solution adaptée. Un appel d'offres a donc été lancé pour la création de ces trottoirs et a été attribué à l'entreprise Sobamat pour un montant de 175 000 €^{ht} Une réunion de présentation du projet aura lieu en ce début d'année avec les habitants du quartier concerné. Les travaux démarreront début février pour une durée d'environ deux mois. ■

Schéma directeur

Consciente des problèmes d'inondations récurrents sur certains sites, la commune a initié un schéma directeur eaux pluviales. Cette étude a été confiée au maître d'œuvre Gedeau conseil et au bureau d'études Ingeau en juin 2017 et est, depuis mars 2018, chapeautée par la CAPB.
Les trois premières phases - recueil et analyse des données, modélisation du système et diagnostic, propositions chiffrées d'aménagements- ont abouti à la rédaction d'un rapport présenté en mairie en novembre 2019. Pour la dizaine de zones sensibles répertoriées en cinq secteurs - Attalaia, Xerrenda, Lapitza, Apezteia et Kattalin - les aménagements proposés comprennent le redimensionnement des buses existantes, la création de nouveaux réseaux pluviaux et l'amélioration des bassins de rétentions. Ces travaux feront l'objet d'une concertation avec la CAPB qui aura cette compétence au premier janvier 2020.
Les phases suivantes - le zonage pluvial suivi d'une enquête publique de six mois- clôtureront courant 2020 cette étude. Les documents définitifs du Schéma directeur validés seront intégrés dans le nouveau PLU actuellement en révision. ■

Crèche Mamurrak

La crèche Mamurrak est une structure d'accueil collectif avec une capacité de 14 places. Elle reçoit des enfants âgés de 10 semaines à 6 ans. Ses périodes de fermeture sont de 3 semaines au mois d'août et une à Noël. Depuis 2018, cette entité dépend de la « Communauté d'Agglomération Pays Basque », qui a la compétence « Petite Enfance ». Le projet d'une nouvelle crèche, initialement prévu par la Commune, verra le jour dans les prochains mois. En effet, l'Agglomération Pays Basque a validé sa construction qui sera située sur le terrain communal en bordure de la crèche actuelle. Elle passera à une capacité maximale de 18 enfants. Le maître d'œuvre vient d'être retenu. Les phases d'études s'étaleront sur quelques mois pour arriver à un dépôt de permis de construire à la rentrée 2020. Le démarrage des travaux s'effectuera début d'année 2021. L'accent sera mis sur la qualité environnementale du projet, notamment en matière de développement durable. Tout ceci pour le bien-être et le confort de nos chers enfants et petits-enfants. ■

//// Mamurrak

Mamurrak haurtzaindegia, 14 haurrei harrera egiteko gaitasuna duen harrera kolektiborako egitura da. 10 hilabete eta 6 urte arteko haurrak hartzen ditu.
Agorrilean 3 astez hesten du eta Eguberriz aste batez.
2018az geroztik, entitate hori "Euskal Hirigune Elkargoaren" menpe da, azken honek "lehen haurtzaroaren" eskumen bere gain hartu baitu.
Gainera, ondoko hilabeteetan, hastapen batean Herriak aurreikusi zuen haurtzaindegi berri baten proiektua gauzatuko da.
Izan ere, Euskal Hirigune Elkargoak herriko lurretan, egungo haurtzaindegiaren ondoan kokatuko den haurtzaindegi berri baten eraikitzea ontzat eman du. 16-18 haur hartzeko gaitasuna ukanen du.
Berriki obra koordinatzailea izendatu dute. Azterketa faseak hilabete batzuez luzatuko dira, eraikuntza baimena eskaera 2020ko eskola sartzean pausatzeko gisan. Lanak 2021eko urte hastapenean abiatuko dira.
Indar berezia eginen da proiektuaren inguramenaren kalitateari dagokionez, bereziki garapen iraunkorrari dagokionez. Hori guzia gure haurren eta haur ttipien ongizatearen izenean.

//// Elizaldeko bidea

Oinezkoen segurtasuna faboratzeko borondatearekin segitzeko, Elizaldiako bidean espaloi bat eraikitzea aztertu zen.
Proiektu horren ardura duen IDEIA ikerketa bulegoak beharrei egokituriko aterabidea proposatu zigun. Ondorioz, espaloi horien eraikuntzarako eskaintza deialdi bat zabaldu zen eta lana Sobamat enpresari esleitu zitzaion zergarik gabeko 175.000 €-ko prezioan. Urte hastapenean, hunkituak diren auzoetako biztanleekin proiektuaren aurkezpen bilkura bat antolatuko da. Lanak otsailean abiatuko dira eta 2 hilabete inguruko iraupena izanen dute.

//// Eskema nagusia

Gune batzuetan errepikatzen diren ur gainditze arazoak barneraturik, herriak euri uren eskema nagusia abian eman du. Ikerketa hori Gedeu obra zuzendariaren eta Ingeau ikerketa bulegoaren esku utzi zen 2017ko ekainean, eta 2018ko martxoaz geroztik EHEak gainetik gidatzen du.
Lehen hiru faseek – datuen biltze eta analisia, sistemaren moldaketa eta diagnostikoa, antolaketa proposamen zenbakituak – 2019ko azaroan herriko etxean aurkeztu zen txosten bat sortzera eraman zuten. Bost sektoretako –Attalaia, Xerrenda, Lapitza, Apezteia eta Kattalin - hamar bat eremuretarako antolaketa proposamenek, jadanik lekuan diren hodiak hodi haundiagoez aldatzea, euri urendako sare berrien sortzea eta erretentzio urmaelen hobetzea barne hartzen dute. Lan horiek, 2020an eskumena haren gain ukanen duen EHEarekin elkar aditzera eramanen dute.
Ondoko faseak – euri uren zonakatzea eta ondotik jinen den sei hilabeteko inkesta publikoa – ikerketarekin finituko dute 2020an zehar. Ontzat emaniko Eskema nagusiaren behin betiko dokumentuak gaur egun berrikuste egoeran den THP berrian sartuko dira.

Social

L'Eusko Eguna à Espelette.

Les seniors à l'honneur

Aujourd'hui, la population des seniors augmente. La commune a souhaité participer aux actions mises en place par plusieurs partenaires dont le Conseil départemental, la CARSAT, l'ARS.

Dans un premier temps, une conférence à destination des aidants familiaux, naturels, s'est déroulée le 8 octobre 2019 avec l'intervention du Centre Local d'Information et de Coordination gérontologique de Bayonne : celle-ci avait pour but de réunir, d'écouter, de conseiller les personnes qui œuvrent auprès de nos aînés, afin qu'ils ne se sentent pas seuls et qu'ils puissent trouver un lieu de parole, d'échanges. Nous avons souhaité mettre en place un groupe : les personnes intéressées peuvent aujourd'hui encore se rapprocher de la mairie.

C'est aux seniors que va s'adresser la prochaine étape, le 17 janvier 2020 matin, avec une intervention de l'Association Santé Éducation et Prévention sur les Territoires sous forme de débat et de propositions d'actions sur le territoire avec comme intitulé «*pour bien vieillir préservez votre capital santé*».

Enfin, le vendredi 7 février 2020 aura lieu une intervention du Comité de la prévention routière « *sensibilisation aux risques routiers des seniors* » permettant d'aborder quelques rappels et d'initier aux nouvelles règles de conduite.

Toutes ces rencontres sont entièrement gratuites et ont lieu au patronage dans la plus grande simplicité et convivialité : venez nombreux ! ■

L'Eusko Eguna

Samedi 4 avril 2020, Espelette accueillera l'Eusko Eguna, le grand rassemblement familial de l'Eusko. L'Eusko Eguna est une fête populaire avec des animations gratuites pour tous les âges, un coin repos pour les enfants, des conférences, un marché paysan, des buvettes, des talo, un repas à base de produits locaux, un grand concert le soir et plein de surprises ! **La journée est bien sûr ouverte à tous, adhérents ou non à l'Eusko.** Plus d'infos sur l'Eusko : www.euskalmoneta.org 05 33 47 54 11. ■

Le personnel communal évolue

En ce début du mois de janvier, M^me^ Véronique Dubranle a pris sa retraite après 16 années de service au sein de la commune d'Espelette. Nous lui souhaitons bonne route pour la suite.

La nouvelle bibliothèque ouvrira ses portes le 22 janvier 2020. M^me^ Hélène Teytaut travaillant déjà sur la médiathèque d'Hasparren a été recrutée sur un contrat de 20h/semaine. Nous lui souhaitons la bienvenue. Elle travaillera aux côtés de l'équipe déjà en place.

Nous profitons d'ailleurs de ce bulletin pour remercier l'ensemble des bénévoles qui assure ce service depuis de nombreuses années et nous espérons vivement que les usagers seront nombreux. ■

//// Adinekoak ohoratuak

Gaur egun adinekoen kopuruak gora egiten du. Herriak, partalier batzuek, hauen artean Departamenduko Kontseilua, CARSAT eta ARS, abian emaniko ekintzetan parte hartu nahi izan du. Hastapen batean, 2019ko urriaren 8an familia laguntzaileei zuzenduriko konferentzia bat iragan zen BAIONAko Gerontologia Informazio eta Koordinazio Tokiko Zentroaren esku hartzearekin: honek adinekoekin lan egiten dutenak elkartu, entzun eta aholkatzeko helburua zuen, ez zezaten bakarri direla pentsa eta mintzatzeko eta iritziak trukatzeko eremu bat atzeman zezaten.

Talde bat plantan eman nahi izan dugu: interesa duten pertsonak herriko etxera jo dezakete oraindik ere.

2020ko urtarrilaren 17 goizean iraganen den ondoko urratsa adinekoei zuzenduko da. Hartan, Lurraldeetako Osasun eta Prebentzioa elkarteak esku hartuko du, "ontsa zahartzeko zure osasun kapitala zaindu" izenburu pean aurkeztuko duen eztabaidekin eta lurralderako ekintza proposamenekin.

Azkenik, 2020ko otsailaren 7an, ostiralarekin, Bide Prebentziorako batzordearen esku hartzearen bidez "adinekoen bideko arriskuen sentsibilizazioa" gaia aipagai izanen dute, oroitarazte batzuk egiteko eta gidatze arau berriak irakasteko gisan.

Hitzordu guzi horiek doakoak dira eta patronaia aretoan sinpletasunean eta lagun giroan iragaten dira: zatozte saldo handian!

//// Eusko Eguna Ezpeletan!

2020ko apirilaren 4an, larunbatarekin, Ezpeletan Euskoaren familia handiaren besta den Eusko Eguna iraganen da. Eusko Eguna, adin guzietarako doako animazioak eskaintzen dituen besta herrikoia da. Hartan , haurrendako joko leku bat, laborari merkatua, ostatua, taloak, tokiko ekoizpenekin osaturiko bazkari herrikoia, kontzertu handi bat eta sorpresa anitz izanen dira!

Egun hori denei irekia da, bistan dena, Euskoaren kide diren eta ez direnentzat.

Euskoari buruzko argibide gehiago: www.euskalmoneta.org – 05 33 47 54 11

//// Herriko langileak

Urtarrila hasiera huntan, Véronique Dubranle andereak, 16 urte herriko etxean pasaturik bere erretreta hartuko du. Bide on bat desiratzen diogu.

Urtarrilaren 22an liburutegi berriak bere ateak idekiko ditu. Jadanik Hazparneko mediatekan ari den Hélène Teytaud anderea kide berri gisa hartua izan da, 20 oren asteka. Lekuan den ekiparekin lan eginen du. Aldizkari hortaz baliatzen gira laguntzaile guziak eskertzeko duela hainbat urte zerbitzu hori segurtatzen baitute. Espero erabiltzaileak nunbrean izanen direla.

Bois

Des platanes ont été élagués à Lapitza. Un très bon travail a été fait. Il en reste encore quelques-uns, toute personne intéressée peut s'inscrire en mairie. La commune détient du bois de chauffage coupé à deux mètres et stocké au dépôt des services techniques. Celui-ci est en vente au prix de 30 € le stère.
La commission agricole a reçu les personnes intéressées par les bois d'acacia. Ces arbres étaient devenus dangereux et menaçaient de tomber dans les prairies avoisinantes. Une convention de vente de bois sera signée avec les différentes personnes qui se sont portées candidates. L'abattage se fera courant 2020, en fonction de la météo et des disponibilités des acquéreurs. ■

Aides Maet

Ça y est, les aides MAET 2016, 2017 et 2018 (Mesures Agro-environnementales et Territoriales) nous ont enfin été versées ! Nous avons fait le choix d'en reverser la majeure partie aux éleveurs, sachant que les communes sont libres d'en garder tout ou partie pour l'entretien des pâturages collectifs : broyage, rénovation des enclos et parcs en montagne. Une fois déduits ces frais, les modalités de redistribution ont été les suivantes :

- Versement d'une somme proportionnelle aux UGB (unités de gros bétail) transhumants.
- Plafonnement à 100 UGB transhumants au total par éleveur.
- Plafonnement des bovins transhumants à 10 vaches de plus de deux ans. ■

Violence animale

Des faits de violences sur les animaux domestiques et notamment sur des chats ont été remontés à la mairie par l'association askiki 64 basée à Espelette. Nous vous rappelons que les actes de cruauté envers un animal domestique sont passibles de deux ans d'emprisonnement et de 30 000 € d'amende.
Si vous êtes témoin de tels agissements contacter l'association : askiki64@yahoo.fr ■

Montagnes

Les trois communes d'Espelette, Itxassou et Ainhoa se sont réunies afin d'étudier et de mettre en place, dès l'année 2020, un règlement d'estive. EHLG (Euskal Herriko Laborantza Ganbara) nous accompagne sur le plan juridique. Nous réunirons tous les transhumants en début d'année prochaine afin de leur présenter le travail qui aura été fait. ■

Écobuages

Les demandes ont récemment été étudiées par la commission agricole, un technicien Natura 2000 et les chasseurs. ■

//// 2016-2017-2018 aln laguntzak

Hara, azkenean, LLN (Laborantza-inguramenako eta Lurraldeko Neurriak) laguntzak esleituak izan zaizkigu! Parte handiena hazleei esleitzeko erabakia hartu dugu, jakinez, herriak laguntza osoa edo parte bat atxikitzeko libro direla, baltsako alhapideen mantenua egiteko: xehatzea, xeilen berritzea eta mendiko parkeak.
Fresa horiek kendu eta, esleitzeko moldeak ondoko hauek dira:

- KHU (Kabala Handien Unitate, fr. UGB) transhumanteei diru esleitze proportzionala.
- Hazle bakoitzeko gehienezko 100 KHU trantsumantera mugatzea.
- Behi trantsumanteentzat, 2 urtez gorako 10 behira mugatzea.

//// Mendiak

Ezpeletako, Itsasuko eta Ainhoako herriak, 2020an udako araudi baten aztertzeko eta plantan ezartzeko elkartu dira. EHLGak (Euskal Herriko Laborantza Ganbara) arlo juridikoan laguntzen gaitu. Heldu den urte hastapenean trantsumante guziak elkartuko ditugu, egina izan den lana aurkezteko gisan.

//// Egurra

Lapitzan, alboak xedarratu dira. Lan ona egina izan da. Oraindik batzuk gelditzen dira, interesdunek herriko etxean izena ematen ahalko dute. Bestalde, herriak 2 metrotan mozturiko surako egurra badu eta bidezainen biltegian da. eztera 30 €-tan zaltzen da. Laborantza batzordea akazia egurraz interesatua den jendearekin egon da. Zuhaitz horiek lanjerosak bilakatu ziren eta ondoko pentzeetan erortzeko arriskua zuten. Hautagai agertu diren pertsona desberdinekin egur salmenta hitzarmen bat izenpetuko da. Zuhaitzak 2020an zehar botako dira, aroaren eta erosleen ahalen arabera

//// Larre erretzea

Laborantza batzordeak, Natura 2.000k eta ihiztariek galdeak aztertu berri dituzte.

//// Ezpeletan kokatua den Askiki 64 elkarteak herriko etxeari jakinarazi dionez, etxe abereen aurkako bortizkeria ekintzak izan dira, bereziki gatuen aurkakoak. Abereekiko krudeltasun ekintzak 2 urteko presondegi zigorrarekin eta 30.000 €-ko isunarekin zigor daitezkeela oroitarazten dugu. Gisa horretako egitateen lekuko izanez gero elkartearekin harremanetan sar zaitez: askiki64@yahoo.fr.

Bilan de la saison touristique 2019

2019 ko sasoiko bilana

Quelques chiffres

Le Bureau d'Accueil touristique d'Espelette a accueilli environ 28700 visiteurs en 2019, dont 7800 personnes renseignées au comptoir. Il est à noter une baisse de fréquentation sur les mois de juillet et août, - 18% par rapport à l'année précédente. L'arrière-saison a été plutôt satisfaisante.

Concernant les demandes à l'accueil, elles portent principalement sur : ce qu'il y a à visiter au village et au Pays Basque, les randonnées, les animations et les hébergements. Notre principale clientèle provient des départements suivants : Gironde, Loire-Atlantique, Vendée et Charente Maritime... Environ 10% des touristes sont étrangers, dans les pays les plus représentés on retrouve : l'Espagne, la Belgique, l'Allemagne et le Royaume-Uni.

Le bureau se compose de deux salariées à l'accueil : Laetitia et Sandrine ; Klodina est venue renforcer l'équipe pendant la saison estivale. Stéphanie est aujourd'hui responsable du pôle promotion et de la filière randonnée à l'échelle du Pays Basque.

Nouvelles missions

Depuis la fusion des Offices de Tourisme du Pays Basque au 1er octobre 2018, le personnel du bureau d'accueil touristique d'Espelette s'est professionnalisé et assure maintenant des nouvelles missions telles que : la commercialisation de l'offre touristique : hébergements, activités, visites ; la gestion de la billetterie des différents événements organisés à l'échelle du Pays Basque ou encore l'accompagnement des hébergeurs pour la collecte de la taxe de séjour.

Sans oublier les missions principales telles que : l'accueil et l'information du public, la gestion des informations ainsi que la coordination des acteurs locaux.

Les chèques *Pays Basque au Coeur* sont disponibles à la vente dans certains bureaux du Pays Basque et notamment celui d'Espelette depuis décembre 2019.

28700

visiteurs dont 7800 renseignées au comptoir

//// Xifre batzu

Orokorki Ezpeletako bulegoak 28700 bisitari errezebitu ditu. Aintzineko urteari konparatuz, uztailan eta agorrilean, %18 ko apaltze bat izan da. Gibeleko sasoina onargarria izan da.

Gure bezeroa gehien bat Gironde, Loire-Atlantique, Vendée eta Charente Maritime-etik heldu da, %10ak kanpotiarrak dira, bereziki : Espainia, Belgia, Alemania eta Erresuma Batuetatik…

Bulegoan 2 langile dira : Sandrine eta Laetitia, sasoinarentzat Klodina ekipa indartzera etorri da. Stéphanie Euskal Herriko promozioaz eta ibilaldietaz arduratzen da orain.

//// Misio berriak

2018 ko urriaren 1etik goiti, Ezpeletako turismo bulegoak misio berriak segurtatzen ditu: ostatzeak, aktibitateak, bisitak, E.H an antolatuak diren gertakari desberdinen billeten salmenten kudeaketa. Eta bistan dena, publikoaren harrera eta informazioa. Euskal Herrian bihotzean txekeak salduak dira orain Ezpeletan.

//// 2020eko proiektuak

Euskal Herriko turismo bulegoen webgunea eraikia izanen da 2020eko ekainean, eta harekin betan, beste webgune guzien bukaera izanen da. Argibide orrien ttipitzea eta tresna emaitza onekoen sortzea.

Projets de l'Office de Tourisme Pays Basque pour l'année 2020

Le nouveau site internet de l'Office de Tourisme Pays Basque sera lancé en juin 2020 et entraînera la fin de tous les sites existants.

D'autres actions sont en cours comme la refonte des éditions avec la diminution du nombre de dépliants et la conception d'outils plus performants : évolution de la carte touristique et création d'un guide de voyage. ■